

Aldaxka giroa

GAZTAINONDOAREN lore arrak eta gizonaren haziak, biek, espermidina deituriko poliamida bat dutela esanez agurtu genuen uda hasiera sapa hura. Gai honek zelulen garapenean zeresan handia duela nioen.

Landareetara lotuta, badira hazkundea eta garapena erabat baldintzatzen duten gai gehiago ere. Ezagunenak hormonak.

Hazi bat ernatuta, txerto bat eginda edo aldaxka bat itsatsita, landare bat mundura sortzen denean zailtan nekosoena izango den bide bati ekiten dio: hazteari. Bide horretan guk lagundu diezaiokegu; ongarriak eskuera jarritz, adibidez, edo hormona berak emanez ere.

Landarearen hazkundean erantzukizun handiena duten hormonak asunak dira. Euskal Wikipediak dioen eran, auxina izena grekotik dator: $\alpha\chi\alpha\nu\omega$, auxano, hazkundea esan nahi du.

Urte sasoi hau aldaxkak erabiliz landare berriak sortzeko aukera da. Behin udazkenean sartuz gero alferrik saiatuko gara. Landare bati moztu eta kendutako adar pusketa bat da aldaxka, eta sustraiak sortu eta itsasteko aldatu egiten da. Lan hori ahal den azkarren egiteko baldintza egokiengatik burutzea komeni da. Adar



JUSTINC-CC BY SA

Dilistek, *Lens culinaris*, erruz dauzkate hazkundea azkartzen duten hormonak.

indartsua, aldatzeko lur gozoa eta toki egokia aukeratu. Tarte batean sustrairik gabe iraun beharko duenez babesia hobe, eguzki galdatan behintzat ez jarri. Itsasteak bi lan ditu: adarra moztetakoan egindako zauria itxi eta sustraiak sortu. Bi lanok bizi-bizi burutzeko hormonak behar. Zelula berrien sorrera hormonak akuilatuko du. Hormona geuk eman diezaiokegu. Kimikoak badira, baina baita naturalak ere. Dilistak, *Lens culinaris*, adibidez, erruz du.

Erraza da dilisten hormona hori baliatzea: hartu eskukada bat ale, gau batez litro bete uretan beratzen eduki, atera eta ura jaso,

urasetutako aleak goata edo paper hezetan jarri, sustraiak agertu eta 2-3 zentimetro luzatzen direnean moztu, dilistak zaperorako edo organikora bota, sustraiak motrailuan birrindu eta beratzeko ur hartan sartuta beste gau batez eduki. Horra auxinak lepo betetako ura. Ur hori urardotu eta aldaxka aldatu dugun ontzia edo lursaila ureztatu behar da. Eskertza laster igarriko diozu. Negurako sendo itsatsiko da.

Aldaxka, txertoarekin batera, landare baten klonak, hau da berdinberdinak diren landareak sortzeko erabiltzen da. ■



Bartolo

taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com